

6. Ahozko komunikazioak: Egunen izenen esangurak

Josu Naberan

6.1. Komunikazioa / Communication / Comunicación

a) Astelehena / Asteartea / Asteazkena

Hauek sobera ezagunak dira eta esanahia ere erraz asko hauteman daiteke. Halere, ohartxo bat euskaraz pentsatzen ohituta ez daudenei: ez da gauza bera "tarte(ko) astea" eta "aste(en) tarte" (edo asteartea); ez denez gauza bera "semana intermedia", "moyen" (Gorostiaga, Her- vás, M. Glonti, Vinson ...) eta "intervalo o interín entre semanas".

Knorr euskaltzainak dioenez, "harrigarria da hiru izen hauen izaera nabariegi eta higitu gabea; agian *modernoak* dira". Beharbada halaxe da eta antzinako denboretan ez zituzten izendatu ere egiten ilberri eta larunbatera arteko egunak. Orduan *ilen* egunetik has zatekeen kontaduria. Dena dela, *asteartek* tradizio luzea duela uste dut, azkenean ikusiko dugunez, eta arraro samarra deritzot Neolito garaiko jendeak ilgora eta ilbeherako une zehatzak kontuan ez hartzeari.

b) Ilena / Eguena

Mendebaldeko euskalkian, 7 egundun asteko lehen egunari (astelehenari) *ilen* deitzen zitzaion oraintsu arte. Eguzki egutegiko asteak ilargi faseak eta euron izenak ez dituenéz kontenplazten, seguraski lehenago ilberriari zegokion izen hori -ilen- astearen lehen egunari esleitu zioten, eta hortik astelehenaren sinonimo bilakatzea. Bestela, hitzaren etimologiari buruz K. Mitxelenak esandakoa izan daiteke: *il- egun*. Latinezko "Lunae dies" (frantsesez *lundi*) izenaren paraleloa. Baina esangura bera edukitzeak ez du esan nahi euskarazko izena handik hartua denik eta, beraz, ilen hori ere modemoa denik. Koldo Mitxelenaren arabera, ilen, eguen eta martitzenek duten *-en* atzizki hori ziurren, erlatiboa barik, "egun" edo antzeko hitzen baten arrastoa litzateke.



Irudia: blogberriamarije.blogspot.net

Mendebaldeko euskalkiak damaigu baita ere *eguen* hitza. Arabako Zigoitia aldean eta Nafarraten *eguaun* dena, zaharragoa berau. Mitxelenaren arabera, eguena Egu-ren eguna (egu-egun edo horrelakoren bat) litzateke, ilargi beteari erreferentzia eginez. Nire iritziz batik bat EGUren egunak larunbata barruko jaiegun jakin bati egiten dio erreferentzia, ilenak ilargi berriaren egunari egiten dion bezala. Halaxe kokatu dut "eguenta", jaialdiaren erdi-erdian, bigarren eta hirugarren egunen arteko gaupasa magikoa eta printzipala.

c) Eguastena

Berba oso erabilia mendebaldarron artean eta asteazkenaren sinonimotzat jotzen dute ia denek besterik gabe. Halere, gauza bat da aste eta beste bat *egu*. Lehenengoak egun multzoa adierazten du eta bigarrenak egun banakoa. Horregatik kokatu ditut aparte: asteazkena, egun multzoa adierazten dutenen goiko aldean; *eguastena*, berriz, asteazken horren buruan.

Esan beharrik ez dago okertzat jotzen dudala eguazten hitza *eguazken* bihurtzea. Beste biak ez daude kontraesanean nire hipotesiarekin. Mitxelenak dio, "eguazten -z-rekin, Añibarrok ere dakarren moduan". Autoritate argumentua dago hemen, baina batez ere aguazten-asteaz-ken lotzeko asmoa. Baina, autoritate argumentuekin hasiz gero, zergatik ez oraingoan, Azkuek bere landa lan zabalean jaso zuen moduan, *eguasten* (Bc)? Horixe baita izan ere nire ustetan: EGU jaialdiari hasiera ematen dion eguna (*egu-hatse-egun-'»egu-hasten-'»eguasten).

d) Ostegun-ostiralak

Pedro Paulo Astarloak hiru egunek osatzen duten astearen osteko eguna dela dio osteguna. Halere, J. Caro Barojak, agian arrazoi osoz, osteguna/ortzeguna ortzirekin lotzen du: "nahiago nuke -dio berak- ortzirala eta aurrekoa, osteguna edo ortzeguna egun horrek Europar dituen izen arruntenekin erlazionatzea". Beraz, ondorioztatzen du hala ORTZ nola EGU Thor jainko germaniarraren eguna dela ("zeruko argitasun", "egun argi" eta "orz"ekin lotua) eta euskaldunak hura jaso dugula edo ezarri digutela. Baliteke, bai, haien kontzeptua jasota euskal hitz zaharrari erabilera modernoa ematea. Halere, lehen esan bezala, "ortze" erro euskalduna (gero ost-eratorri ugari eman duena, ostegun-ostirala barne) indoeuroparren aurretiko hitza da, bestelakorik demostratzen ez didaten bitartean.

Esan bezala, *eguenta* ere hor dugu, ostegunaren sinonimoa. Nire hipotesian ilbete jaialdiaren erdigunea litzateke Eguren eguna, larunbat alaitsuaren arnean. Leku horretan, eguen *egu-guren* izan daiteke agian, hizkuntzalariek kontrako argumenturik jartzen ez badute, Ortzegunaren sinonimo. Ortzia inoiz baino distiratsuago eta lurtarrek inoiz baino pozago jai hurrenari ekiten zioten egun magikoa, sagaratua, gurena...

Ostiralak *irala du barne. Zer esan nahi ote?

Barojak "irago" edo "igaro" aditzaz eta "-la" atzizki agenteaz osatuta dagoela dio, "ortzera iragaten den eguna" litzatekeelarik. Vinson jaunak hitz argigarrien zerrendatxo bat dakarkigu irailaz mintzatzean (iragan, irabazi...), gorago ikusi dugunez, eta T. Aranzadik pare bat gehiago erantzen dizkio (irakatsi, iragarri), "impulsar a" esangura emanaz. Nik uste *(i)ra horrek "eratorri(a)" adierazten duela, izarretatik eratorria den irargiaren argia bera bezalaxe. Hots, kasu honetan, Ortze-egunetik edo Egu-egunetik datorren eguna, horien hurrengoa, alegia.

e) Barikua, afari eguna

Bari(a)ku hitza *(a)bari-ba(ga)ko egun, hots, "dies sine cena" izatea proposatzen digu Mitxelenak, kristauen "abari-bako" barau eguna, alegia. Lehen hitza, abari, baxenafarreratik jaso zuen Azkuek, eta hortxe daukagu bizkaitarrok lehenagokoa izan daitekeen apari; hasierako a hori erortzearen arrazoia Mitxelenak berak eman du. Honaino ondo, beraz. Jarraian dago koska: nondik ateratzen da, abari osteko ba(ga)ko hori, oraingo bariaku hitza sekulariora luzatzen duena? Nik uste Bizkaia aldean, kostalde guztiz kristautu bakoan behintzat, "apariku(a)" entzunez gero, alderantzizkoa ulertuko luketela: apari-kontua, nonbait; eta ez inondik ere barau konturik.

Gakoa *-ku* hizkian dago, *egu enborraren arrastoa izan daitekeena. "Laburpen gogorrak (agian gogorregiak) eskatzen baditut ere, hauxe da nik proposatzen dudana", diosku Mitxelenak berak. Eta honela *-ko* bilakaera planteatzen du:

*(a)baribakoeun -> *bari(b)akoun -> *bariakun -> bariaku -> bariku.


Zenbat eta buruan buelta gehiago eman Mitxelenaren irakurketari, hainbat surrealistago deritzot. "Mundu guztiak ez bada, (autore) gehienek gogoan izan dute bariaku barau eguna zela", diosku. Baina hortik ezin da ondorioztatu, besterik gabe, bariaku izenak barau hitza barne hartzen duela egiatan. Eta beste argumenturik gabe, gure barikua kristau ohituraren menpe jarri da epe motz sinesgaitzean. Hitzaren beraren halako higadura handiak mende bat eta bi baino askoz denbora luzeagoa behar zukeen. Badago gainera beste kontu bat: mendebaldeko euskalkiak ez duela bestelako izen altematiborik egun horretarako. Bada egubakoitz, baina hori beste kontu bat da, oraintxe ikusiko dugunez.

Nik beste proposamen hau dakart, *barieku* ere hor daukagula kontuan hartuz:

*apari-egu -> barieku -> bariaku -> bariku

Arazo bakarra g hori k bihurtu izana litzateke, baina ez dut uste fonetika aldetik eragozpenik dagoenik. Izatez, hor daukagu egutera (Be, Gc., sitio soleado, oriente) *ekera* bihurtuta G-Ezkiogan.

Proposamen berri hau zuzena balitz, izen berri-berria barik, zahar- zaharra genuke bariku. Eta, honela, ilargi-zikloaren eremutik eta Egu-ren lau hurrenetik irten beharrik gabe, larunbata barneko hirugarren jai egunean, bakoitza bere etxera itzuli aurretik, afari eder bat egiten zutela ondoriozta genezake. Euskal gastronomia sailak bederen eskertuko al du barikuari bere ohore galdua berreman nahia.



f) Egubakoitza (B), ebiakoitza (BN), irakoitza (BN, S)

Orain arte berba hauek ez dute aurkitu azalpen eta kokapen garbirik egutegian. Barojak "egun bakoitza" edo "bakoitzaren eguna" aipatzen du lar konbentzimendu barik. H. Knorrek, berriz, egubakoitz "unique day" izan daitekeela esan zuen Oxford VI & SEAC 1999ko Kongresuan, baina esplikazio hori ez dela guztiz asebetegarria.

Nik uste asebetegarria dela, baldin izen horrek adierazten duena ulertzen bada.

Jakina da ilargi fasetik faserako tartekak ez direla homogeneoak. Normalean 6 gau dira, baina sarritan 7, eta zenbaitetan 8 edota 5 bakarrik, ilberririk ilgorara, ilgoratik ilbetara, ilbetetik ilbeherara eta ilbeheratik berriro ilberrira doan zikloan. Horregatik soberan zegoen egunari (zazpigarrenari) *egubakoitz* edo *ebiakoitz* izena jartzea. Bada toponimian Pagobakoitz (Urbian) eta deituretan Etxabakoitz, adibidez, gauza bera esan nahi dutenak: *-bakoitz* osagaia duten hitzok "bakarra, bakana, berezia, apartekoa" den gauza seinalatzen dute; horrela egubakoitz nahiz ebiakoitzek "egun bakana" edo "egun soltea" adieraziko lukete. Nik zikloaren 7. egun soberakin horri *egubakoitz* ezarri diot; eta horren ondorengo beste soberakin bat (zortzigarrena) suertatuz gero, 2004ko agorrilaren 15ean eta abenduaren 4an gertatuko den bezala, *irakoitz*. Hortxe dugu ira(ba)koitzen **ira* enborra berriro. Egubakoitzetik eratorria esan gura du seguruenik, *irastu* (B., oinasturen sinonimoa) asturutik eratorria den moduan. Beraz, Vinson jaunaren susmoekin bat, egubakoitzen hurrengo eguna litzateke irakoitz.

Izen bat geratzen da azaldu gabe: *ebiakoitz*. Baliteke jatorrizkoa "egubakoitz" izatea edota seguruenik "ekhibakoitz/egibakoitz" izatea eta gero g hori b bilakatzea, eguerditik eberdira igaro garen moduan. Orduan, ekhi edo eki baxenafar eta zuberotarrak eguneko argia adierazten du (eguzkia), gauekoa barik. Baina horrek ere badu zentzua, noski, goizaldetik arratsera arteko eguna ere barne hartuz gero bakoitzat. Azkuek *ibiakoitz* jaso zuen (BN-gar) eta horrek ibi izatearen atea ere irekitzen du: egun batetik besterako igarobidea.

Oztopo bat bidean: egubakoitz ostirala da mendebaldean, baina ebiakoitz larunbata ekialdean. Hitz sinonimoak egun desberdinak adierazten? Pirinio ikuspegi bikoitzean ote dago gakoa? Nire hipotesian biek daukate zentzua. Egun soberakin hori larunbataren barnean gertatzen da, orain ikusiko dugunez: hortik larunbata adieraztea ekialdean; baina ostiralaren eranskin gisara gertatzen da zehazki: eta hortik ostirala adieraztea mendebaldean.

Ikusi dugu egutegien historian egunak, hilabeteak eta urteak tartekatzea eragiketa arrunta izan dela desfaseak konpontzeko. Adibidez, hindu egutegian 360 eguneko urtea da, 27 edo 28 eguneko hamabi ilargialditan banatua, baina 60 urtero hilabete bat tartekatzen dute ("hile- bakoitza", kasu honetan). Antzinako euskal egutegian, berriz, epe luzeegirik tartekatu beharrik ez zegoenez, ilargiaren argiak berak ematen zuen begietara egubakoitzak noiz tartekatu.

g) Larunbata, euskaldunen Sabbath-a (sapatua)

"Eguzqui bako lauren batik ez"

Ikusi ditugu larunbat izenari buruzko iritzi ezberdinak. Ia guztiak datoz bat aldi jakin baten "lauren-bat" delakoaz, eta ia guztiak baita ere hilaren laurdenak adierazten dituela (Caro Barajaren arabera egun finkoekin gainera, nahiz eta lerro batzuk geroago esan ez dagoela gai horretaz batere ziur).

Mitxelenak zerbait arraroa somatu zuen hitz eta esangura horren gainean: "laurena edo laugarrena izan dedin, asteazkenak behar luke lehen eguna izan; beste aldera kontatuaz, berriz, astearteak. Gainera eta bestalde, Leizarragak arrazoi balu beste guztien kontra eta gainetik, *-bate* litzake, ez *-bat*, azken zatia. (...) Orduan, beharbada, eta beste zenbait denbora neurri izenetan gertatzen denaren arabera, *-te* atzizkia geneukake hemen ere: cf. *aste*, *urt(h)e*, *mende* (errong. zub. *mente*) eta *igande* (errong. zub. *igante*)".

Nabari denez, larunbataren arazoak ez dauka konponbide erosorik zazpi eguneko astea oinarritzat hartuz. Gainera, hain jai handia bazen, talde askok parte hartuko zuen; orduan, jai hori zazpi egunero eginez, bizitza osoa pasatu behar zuten erromeria horretara joan-etorrian. Esaterako, Karrantza eta Ason haranetako familiak biltzeko, Laperratik Kobaganara (Covalanas) hogeit hamar kilometro inguru izango da, nahiz eta mendiz hamar-hamabost inguru, eta astero larunbatera joatea larregitxo zatekeen.

Hiru hipotesiren artean hautatu beharra dago, beraz, larunbatz:


a) Astarloak, Vinsonek eta Barojak (eta horien jarraitzaileek) proposatzen **duen ilargialdi bateko laurden** matematikoa.

b) Bi ilargialdiko hipotesiaren arabera, **hamabosteroko larunbata**.

Hortaz, ilbeteak eta ilenak binako ilargialdiaren "lauren batak" liriateke; binako ilargialdia, horrela, 8 hilabeteko urtearen larunbata; eta bost urteko aldiak 40 ilargialdiko zenbaki biribila. Perfektuegia, biribilegia, egia izateko. Lehen oztopoa: Estrabonek ez du aipatzen ilberriko jairik, ilbeteko jai handia baizik.

c) Larunbata "laurren betea" izatea, **ilbeteko lau eguneko jaiegun hurrenkera**. Azken honen aldekoa naiz ni.

Mitxelenak *larun-* hizkiaren aldagaiak biltzen ditu testu zaharretatik: lauren-, laren-, laran-. "Iturburu komuna nekez izan daiteke lauren + bat(e)", dio berak. "Zein ote da, bada: laur(en)-egun edo?"



Irudia: erabili.com

Nire hipotesiak "r" bat gehiago du: laurren.

Ohituak gara bederatziurren, zortziurren, hirurren eta horrelako egun hurrenetara. Orduan zergatik ez laurren alaitsu bat? Bigarren hizkiari buruz, Leizarragarekin eta Mitxelenarekin ados *-bate* aldakia hautatuta, hipotesi hau dakart: hasieran "bete" zatekeenak azken e galdu zuela (e hori erortzea oso arrunta dela dio Mitxelenak berak) eta, "bet" hitz arrotza geratzean, "bet" hori "bat" bilakatu zela berehala, kakofonia ekiditearren. Horrela, laurren+betea zatekeen jatorrizko hotsa. Eta jatorrizko esangura "lau egun jarraikiko ilbetea". Horixe da ilargi egutegian markatu dudana: asteazkenaren buruan dagoen eguastena, eguena, bari(a)kua eta igandea barne hartzen dituen lau-hurren ederra. Edota, egubakoitz suertatzen denean, eguena (osteguna), barikua (ostirala), egubakoitza eta igandea barne hartzen dituen larunbata. Bat nator horrela A. Marschackek ilargi egutegiaren ilgora gunean seinalatzen dituen lau puntutxo jarraikiekin.

Dena dela, *lauren bata* edo *laurren betea* hipotesi bata zein bestea hobetsi, biak dira bateragarri praktikan, ilargialdi bakoitzaren ilbeteen kokatzen direnez. Zein bilakaera izan du larunbatak, orduan?: *la(h)urren betea -> *laurren bate -> larunbata -> larunbat-a; edo horren antzeko bilakaeraren bat, betiere e hotsak erortzeko edo a bihurtzeko duen joerarekin, betea izenlagunaren azken a galtzeraino.

Andere -> andre bilakaeraren antzekoa nonbait, azken honek bere "e" galdu ezin badu ere. Larunbataren aldakien artean *larembata* eta *laurembata*, Mitxelenak aipaturiko testu batean Otxoa Arin gipuzkoarrak idatziak biak "Iruñeco Obispadu"az mintzatzean. *Laurembata* oso hurbil dago lau-urren betetik. Gainera beste hitz batzuen bilakaera iradoki dezakegu: Larraul eta Etxarren, esaterako. Lehenengoaren bilakaera *Larra(h)urren -> Larraul (gip.) -> Larreun (jaka) -> Larun (naf., Larunbe konposatuan). Beraz, Larre hurrenetik Larunera higitu da agian, gure auziko hitzak laurren-betik larunbatera bezalaxe. Are argiagoa litzateke Etxarren hitzaren kasua.

Egungo egutegiaren barruan, euskaldunek zenbait santu-egun eta data hartu dute erreferentziazat, hasieran esan bezala, eta gainera lau eguneko egun hurrenak ospatzen dira, edo ospatzen zen oraintsu arte: Asentzio lehenengoa, Asentzio bigarrena, Asentzio bezpera eta Asentzio. Bada beste "laurren" ospetsu bat Gernikealdekoon artean: Andra Mari, San Roke, San Roketxu eta San Roke Txiki. Orain autoak eta daude, baina lehen, behin Sollube barreneko Paresitik Gernikara joan ezkerro, zelan etxeratu hurrengo egunean?

Gauza bera gertatuko zen ilbete ospakizunean, eta larunbataren barruan, eguena litzateke jaiegun nagusia: EGUren eguna.

g) Igandea

Autore gehienak "igan handia" adierazten duela diote. Hots, ilbetearen puntu gorena. Nik ere horrelakotzat kokatu dut egutegian.

Mitxelenak dio kristau hitza ez ote den izango. Halere, infernetara jaisteak eta handik igaiteak kristau aurreko tradizio luzea du, Astareren mito anatoliar-mesopotamiarrean ageri denez. Aldiz, domeka hitzak bai duela kristau jatorria (dies dominica). Erromatar munduak "Jaunaren Eguna" deitu arren, eliza grekoan genero femeninoa omen zeukan (Rohlf's), eta halaxe bereganatu zuela dirudi euskal jendeak ere. Horren lekuko Arabako domequea (Landuccik aipatua) eta mendebaldeko eta are Gipuzkoa eta Nafarroako zenbait eskualdetako *domeeka* izena.

Beste zertxobait igandeari buruz: igandi, iande, igante aldakiek ez ote lezakete "iragande" edo "iragan handia" adierazi? Iltzarretik ilberriranzko jeurta edo norantz aldaketa? Izan ere, ilbeteari ilzar (AN-b- est, B,G) edo ilzaar (B-m) deitzen baitiote, Azkuek jasotzen duenez. Baina utz dezadan kontu hau hizkuntzalari trebeagoen esku eta noan atal hau amaitzera.

Hona hemen igandearen sinonimo bitxia: neskenegun. Nire hipotesian bere lekua daukake: (a)bariku biharamunean, igandean, neskek beren jaia ospatuko zuten merezimendu osoz, zeren bezperako afari hura beraiek prestatuko baitzuten seguruenik. Txantxaz aparte, ikertzea merezi duen datu etnografiko interesgarria da neskenegun hori. Askok aipatu du oraintsu arte Euskal Herriko hainbat lekutan zegoen neska-laguntze ohitura: mutilek neskak berauen etxeetara laguntzen ematen zuten arratsaldea eta neskalagunak prestatuturiko afaria izaten zuen gero bikoteak neskaren sendiarekin.

Halaxe heldu gara puzzlearen amaierara. Besteren batek puzzle piezaren bati zirri egin eta larakoa jota uzten duen arte nire gurdia. Baina zer axola, gero eta dotoreagoa izango bada euskaldunon gurdia.